



2HI-037/07-P05-A
(BHI-015/07-P05-A)

TEODORO OLEA ITURREGI EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN
ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Vitoria-Gasteizen maiatzaren 10ean Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako 3/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

“1.- Txostenean lotesleak diren alderdiak.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Urdulizko udalerriko Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientearen aldeko txostena egin da, betiere Arau Subsidiarioak Bilbo Metropolitarrako Lurraldearen Zatiko Planaren aurreikuspenetara egokitzeari eta hainbat alderdi zuzentzeari dagokionez.

2.- Txostenean lotesleak ez diren alderdiak.

Berraztertzeke espediente bat izan beharko zukeen Bilbo Metropolitarrako Lurraldearen Zatiko Planak proposatzen dituen berriro dentsifikatzeko estrategiei aurre egiteko plangintzaren irudia –espediente honen eskalan–. Berraztertzeke espediente horrek, oro har, udalerrirako lurralde-eredu berria jorratu beharko luke.”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko maiatzaren 10ean.

IDAIZKARIA
Izta.: Teodoro Olea Iturregi.

